



*Ikerketak*

## **Leher egin gabe ikasi? Alemanezko ikastaro sugestopediko esperimentalak**

*Bernhard Mathinet, Gudrun Rach,  
Jürgen Wolff, Petra Zimmermann*

*Tandem-en, SUGESTOPEDIAZ baliatuz alemana irakasteko ikastaro pilo-  
to bat egin zen. Lozanov-ek asmatutako Sugestopediaren bitartez, giro  
lasai eta urduritasunik gabekoan ikastea lortzen da, adimenaren gaitasu-  
nak hobeto aprobetxatuz eta sugestio-prozesuen bidez ikasketarako joera  
baikorrak sortuz. Metodo horrekin egindako ikastaroarekin batera ikerketa  
txiki bat ere egin genuen. Ikasitakoaren ontasunari kalterik egin gabe, bes-  
tela halako biko abiadaz ikasi eta hiztegia handi ote zitekeen jakin nahian.  
Bestalde, lehenengo aldiz erabili genuen metodoa itzulpenik gabe. Ikerke-  
tak oso emaitza interesgarriak eman ditu eta metodo hori euskararen ira-  
kaskuntzan erabiltzeko iradokiko genuke.*

### **1 Sarrera**

Lehenengo urrats gisa metodo horretarako sarbide motx bat eskaini nahi genuke, eta beronen historia gaztea.

Hirurogeigarren urteetan, Georgi Lozanov mediku eta psikoterapeuta bul-  
gariarrak SUGESTOPEDIA asmatu zuen irakasmetodo bezala. Hainbat  
urtetan giza oroimenaren ikerketan aritu zen, bereziki honako arazo honen  
inguruan: nola handi daiteke oroimenaren gaitasuna pertsonak, ikasleak,  
oharkabeak jasotzen duen informazioaren igorpenaren bitartez? Informa-  
zioaren igorpen horixe da Sugestopediazko metodoan “sugestioarekin”  
loturik dagoen zera. Sugestopedia terminoak, Lozanov-ek berak sortutako-  
ak, bi kontzeptu ditu, beraz, bere baitan: sugestioa eta pedagogia.

Sugestioa, Lozanov-en hitzen arabera, etengabe ari da edozein elkarrekin-  
tzatan faktore komunikatibo gisa, bereziki adimenaren subkonstziente-

-mailan<sup>1</sup>. Sugestio horiez balia daiteke ikasleek beren adimen-ahaltenak areago ditzaten.

Zer dira sugestioak? Garrantzizkoa da esatea, sugestioa diogunean, ez garela nagusiki ikasgai dagoenaz ari, baizik eta ikaskuntzako giroaz bere osotasunean. Sugestio eragindakoak dira ikaslearengan bere buruarekiko konfidantza handitzeko: berak, alegia, xede duen hura lor dezakeela, hizkuntza bat ikastea. Sugestio hauek irakaslearen jarrera baikorren bitartez igortzen zaizkio, adore eta sostengu emanez eta talde barruan giro lasai eta konfidantza osokoa lortuz. Garrantzi handia du irakasle-ikasleen arteko harremanak baikor, suspertzaile, lotsarik gabeko eta finkoak izateak, eta hala berean ikasleen artekoak ere.

Baina, Lozanov-ek dioten bezala, ez dago sugestiorik “des-sugestiorik” gabe. Hau da, azpikontzientean behin eta berriz errepikatzen diren kontzeptu eta jarretatik askatu gabe; oztopo horiek gaingitu egin behar dira, sugestio onurakor eta aldekoak galerazi eta motel bait ditzakete. Hori “des-sugestio” bidez egingo da, eta oztopo horiek “armonizatuz”. “Kontra-sugestioa”, beraz, prozesu bat da, norberari buruz izan ohi diren irudipen ezkor eta gutxiespenen aurkako prozesua<sup>2</sup>.

Bulgarian lehenbiziko ikastaroek izandako arrakastak (1964eaz geroztik talde askok sakonki aztertuak) 1966an Sofia Unibertsitateko Institutu Pedagogikoan, Sugestopediako Departamendu bat sortzea ekarri zuen. Ekialdeko hainbat lurraldek ere aintzakotzat hartu zuen metodoa eta ezartzen hasi zen. Alderantziz, ez zuen ia harremanik izan Mendebaldekoekin.

Egoera hau bapatean aldatu zen, Iparrameriketako bi kazetarik Lozanov-en oinarritzko lana<sup>3</sup> ingelesera itzuli eta handik urtebetera *Superlearning*<sup>4</sup> liburua idatzi zutenean. Liburu hau berehala izan zen nazioarteko “best seller” eta nahasmendu handia eragin zuen Lozanov-en ideiak dibulgazio-mailara aldatuz gai hori azaltzeko gidarekin.

Liburu horren ondoren nolahalako institutu asko sortu ziren, batez ere EE.BB.etan, Ostrander eta Shroeder-ek “superikaskuntza” zela eta egindako agintzariei diru-etekina atera nahi ziotenak. Liburuak sortu zuen eztabaida ikaragarriak atzeratu egin zuen mendebaldeko zientzilari askoren esparruan metodoaren azterketa serioa. Liburu horrek, zenbaitetan sugerentea den arren, metodoaren irudi ezkor eta arinegia sortu du. Horregatik, guk nahiago dugu *Superlearning* deitu ordez, *Sugestopedia* deitzea, horrela Lozanov-ek sortutako terminoari leialki eutsiz.

Dena den, izan ziren EE.BB.etan eta Mendebaldeko beste herrialdeetan zenbait psikologo eta pedagogo metodoaren azterketari ekin ziotenak eta, Lozanov oinarri zutela, haren metodoa garatu zutenak, horrela Sugestopedia aurrera bultzatuz eta egunez egun honen eraginkortasuna egiaztatuz.

### 1.1 Metodoaren oinarriak

Gauza berri guztien ezaugarrietan bat tradizioaren aurka borrokatu beharra da, hau bait da beti erreferentzi puntua. Hau da, sortzen den guztiak, sorkari berri denez, ontasunean, eraginkortasunean, emaitzetan “betikoareki-ko” konparazioak jasan beharko ditu.

Sugestopediak, maiz askotan, bi oztopo aurkitu ditu bere aurrean: alde

batetik, ezezaguna izatea eta, bestetik, gizartean onarpen handirik ez duen zera batekin lotuta dagoela; Sugestopedia, izan ere, gehienentzat hipnosi eta psikearen manipulazioarekin oso lotuta dago, eta horiek, batez ere ikaskuntzako metodo bezala, berehala eta berez arbuaiatzen ditu jenderik gehienak. Horren jakinaren gainean, puntu nagusi gisa azpimarratu nahi dugu Sugestopediak ez duela hipnosi eta “buru-garbiketa” edo horrelako manipulazioekin zerikusirik. Eta hala berean, Sugestopediako klasean oinarrian dauden printzipioak aspaldian daudela irakaskuntzan onartuak eta ez dutela aparteko berrikeriarik. Hizkuntz ikaskuntzaren alderdi komunikatiboaz ari gara.

Metodo askorena bezala, Sugestopediaren xede nagusia ikasleen komunikamena garatzea besterik ez da, *askatasunez* komunikatzekoa, alegia; eta ez egituratutako ariketen bitartez bakarrik. Gaur egun ez dirudi printzipio hauek eztabaidagai direnik; hau da, Sugestopediazko klaseek hizkuntz irakaskuntzan onartutako alderdi onurakor guztiak dituztela.

Sugestopediak, beste metodo guztiekin konparatuta, eskaintzen duen abantaila handia da teknika psikologiko, pedagogiko eta “artistikoak” (hitz honen esanahi zabalean, rol-jokoak eta...) konbinatuz, epe motzean gaitasun komunikatiboa hein handian garatzen dela.

Hauexek dira Sugestopediaren oinarrizko printzipioak:

- giro lasai eta larritasunik gabekoan ikatea;
- jakinaren gaineko eta ohargabeko pertzepzioak bateratzeaz baliatzea;
- ikaslearengan gertatzen diren elkarreaginezko prozesu sugestiboen bitartez jarrera baikorrak eta bere buruarekiko konfidantza sortzea.

## 1.2 TANDEM-en asmoak

TANDEM-ek bere hasieratik bertatik hizkuntz eskola baino zerbait gehiago izan nahi du. TANDEM metodoa<sup>5</sup> erabat komunikatiboa izateaz aparte, elkarlanerako metodo ere bada, irakaslearen eta ikasleen arteko eta ikaslearen arteko harremanen ohizko eskemak apurtu nahi dituena, lehi-giroa ez baizik eta elkarlanerako giroa sortuz. Metodo honen beste ezaugarria irakaslearen ikasteko autonomia garatzea da, irakaslearen egitekoa murriztuz. Honetantxe egon daiteke Sugestopediaren eta TANDEM metodoaren arteko kontraesana. Izan ere, TANDEM-ean eta honen antzeko beste metodoetan ez bezala, Sugestopedian irakasleak bait du bere gain paper nagusia. Kontraesan hau argi daiteke lehenbizi bi metodoek amankomunean dutena ikusiz, biek nahi bait dute ikasleak bere buruarengan duen konfidantza indartu (lehenbizi), taldean giro baikor eta elkarlanerakoa sortuz.

Bi metodoen arteko kontraesana ikastaroaren joanean ezabatu egingo da. Izan ere, Sugestopediaz ari diren ikasleek, metodo honen bidez, beren ikaskuntzan gero eta independenteagoak izatea lortzen bait dute (ikus 5.2).

## 2 Sugestopedia- ren deskribapena eta oinarri teorikoa

Sugestopedia metodo integraltzat jo daiteke, ez bait dira hizkuntzako zati bat edo beste bakarka irakasten, baizik eta hizkuntza bere osotasunean. Adimena eta gorputza beren funtzionamenduaren erritmoan bateratzea da kuestioa. Ez da kontuan ezkerreko hemisferioa bakarrik hartuko, hau da,

hitzezko adimena, hizkuntza, pentsakera abstraktoa eta eragiketa matematikoen ardura duena; eskuinekoa ere kontuan hartuko da, bere pentsakera sintetiko eta konkretoarekin, bere soinu, irudi eta elkarketekin. Hizkuntza umetan ikasten dutenek edo txikitandik elebidun direnek garbi ageri dute memorizazio eta berrekoizpen-prozesuak malguagoak direla horiengan helduengan baino. Bost urte bete arte ez da lateralizazioa finkatzen eta, ondorioz, burmuin-azalaren lana orekatuagoa izaten da.

Sugestopediaren oinarritzko osakinek (lasaitasunak, musikak, irudiak bizkortzeak, sugestioak eta testuaren aurkezpenak) horixe dute helburu: malgutasuna berreskuratzea. Memorizazioa zerebroa bere gaitasunak ongien hustiratzeko moduan ari denean egin behar da. Bestalde, sugestioek aurritzi ezkorrak, ikasteko oztopoak jartzen dituztenak, jarrera baikor eta zabal bihurtzen lagundu behar dute.

### 2.1 Lasaitasun-egoera sakona

Egoera lasaia lortzeko bai teknika muskularrak bai psikologikoak erabiltzen dira. Giharreak lasaitzeko da teknika muskularra. Edmund Jacobson-ek (1938)<sup>6</sup> hasitako metodoari jarraitzen zaio. Kontraste bat da: giharreetako tentsio hertsienetik lasaitasunera iristen da bapatean. Horrela sentiberatasuna gehitzen doa lasaitasun sakonera iritsi arte. Metodoa erregulariki erabiliz gero, errazago lortzen da egoera hori. Teknika psikologikoan, ikusizko irudiz suspertzen da ikaslea; beti begiak itxita dauzkala, gero eta lasaitasun handiagora eramango da. Akuilamendua areago daiteke nonbaitera egindako bidaia atseginen baten fantasmarekin edo arrakastaz gainditutako azterketaren batenarekin. Horrela, ikasten aritzeko jarrera egokia lortzen da.

Lasaitasun sakon honen haritik, bihotzaren erritmoa minutuko 70 edo 80 taupadatatik 60tara jeistea lor daiteke. Aldi berean, buruko uhinak ere beta maiztasunetik (14-21 ziklo/seg.) alfa maiztasunera (7-14 ziklo/seg.) motel daitezke. Nekatuta egotetik arreta atsegina edukitzera pasa daiteke, adimenaren gaitasuna handituz.

Lasaialdi horretan, irakasleak ikasketarako esaldi baikorrez beren buruak sugestionatu ditzatela eskatzen die ikasleei. Gorputz-animen elkartasunerako garrantzi handia dute:

- lasaitzeak,
- gorputzaren eta buruaren erritmoa moteltzeak,
- musikak,
- testua aurkezteko moduak.

### 2.2 Musika

Lasaitzeko prozesuan musika erabiltzen da, 4/4eko 60 konpas minutuko dituen. Horrela, musikak gorputzeko erritmoa moteltzen laguntzen du. Musika barrokoa gomendatzen da horretarako. Musikak, bestalde, badu irudimenean eta kontzientziapean eraginik. Harmena, hautematea eta beste gaitasun asko bizkortzen ditu. Horrela, hitzezko estimuluak ez doaz ezkerreko hemisferiora bakarrik, baizik baita eskuinekora ere, emozioen hemisferiora alegia.

Garrantzi handia du musikaren eta hizkuntzaren arteko loturak, hizkuntza

bakoitzak bere erritmoa eta doinua bait ditu. Testua musikaren laguntzaz aurkezteak ikastea errazten du eta lagundu egiten zaio horrela memorizazio-prozesuari.

### **2.3 Testuaren aurkezpena**

Hizkuntz gaia istorioren baten bitartez aurkezten da; esaterako, emozioak ukitzen dituzten eta ikusteko moduan erraz jar daitezkeen elkarriketen bidez. Gorputzaren erritmoa eta musika sinkronizatuz, lau konpasen barruan esaten da esaldi bat, gero beste lauko geldialdia eginez, ikasleak esaldia buruz errepika dezan, egoera ahalik eta garbien buruz irudikatu eta testua ahalik eta ongien gogoan hartu.

### **2.4 Informaziozko gehi-zamaren printzipioa**

Partaideak hitz berri asko eta forma gramatikal asko duten testuen aurrean daude. Aipatuak ditugu geure sozializazioaren barruan hartutako sugestio ezkorren bidez sortu diren adimen-mugak. Kontrolik gabeko informazioaren gain-zamaz (input handitua) eta sugestio baikorrez, mugapen psikologikoak gainditzen dira eta jarrera indartzen.

## **3 Ikasaioaren garapena**

Bost une ditu ikasaioak:

**1** Lehenbizi testuaren aurkezpena egiten da; eguneroko bizitzako elkarriketa eta pasadizoak izan ohi dira, 100-200 esalditan. Egiantzeko aurkezpena lortzeko, ikasgelan istorioko giroa sortu nahi izaten da dekoratuaren eta ikasleen jardunaren bitartez.

Ikasleak 2, 3 edo 4 taldetan bana daitezke, segun eta zenbat solaskide diren elkarriketan. Irakasleak esaldi bat irakurtzen du imintzio eta zeinuen laguntzaz. Ikasleek entzun eta ikusitakoa errepikatzen dute eta irakasleak ahozkerako hutsegiteak zuzentzen ditu.

Gero ikasleek ulertzen ez dutena galdetu egiten dute eta irakasleak azaltzen die imintzio, marrazki eta beste baliabideen laguntzaz.

Lehenengo ikasaioetarako horma-irudiak ere baditugu istorioaren garapena azaltzeko.

**2** Testuaren aurkezpena bukatutakoan (ordubete irauten du gutxi gorabehera) arnasketa-ariketa eta gimnasia egiten dira gorputza eta batez ere burua ondo oxigenoztatzeko. Gero ikasleak eseri edo etzan egingo dira *lehenengo kontzertua* entzuteko. Honi *kontzertu aktiboa* deritzo, ikasleak, patxadan eta musikaren laguntzaz, kasetearekin aurkezten dizkiegun esaldiak buruz errepikatzen dituelako eta egoera irudikatzen. Kontzertuak normalean 25etik 45 minutura irauten du.

**3** Kontzertua amaitutakoan, *Aktualizazioa* izeneko fasea dator. Une honetan ikasaio normaletako elementu guztiak eman daitezke; esaterako, testuei buruzko galderak, azalpen eta ariketa gramatikalak, jolasak eta elkarriketak. Baita ekintza ludikoak, artistikoak ere (marrazkia, abestia, poesia) eta egoeren antzezpenari estimazio handia emanez.

**4** Hurrengo egunean, berririo, ikasleak lasaitu egingo dira *Bigarren kontzerturako*. Honi *pasiboa* deritzo; orain, izan ere, ikasleak, testuari adi-adi egon behar ez duenez, musikari eman diezaioke arreta.

5 Orain hirugarren uneko antzera jokatu da, lasaitzeko ariketaren bat egin daitekeelarik, bidaiaaren bat asmatuz edo beste teknikaren batekin, beharren arabera.

Komeni da gure ikastaro honek Sugestopediazko beste zenbait ikastarorekiko duen aldea azpimarratzea, beste horietan ikasleak esaldiak beren itzulpenarekin entzuten bait ditu.

*Guk ez dugu itzulpenik egiten.* Baditu honek bere alde onak:

- Ikasleak bere burua erabat egoerako giroan sentitzen du.
- Ez da beste hizkuntza edo kultur oinarriekiko erreferentzian lan egiten.
- Entzutezko ulermena handitzen da.

Hau errazagotzeko, ikasleari, hasierako ikastaroan, alemanezko esaldi batzuk irakasten zaizkio. Adibidez, Nola deritzo honi?, Ez dut ulertzen..., Zer esan nahi du...? Nola idazten da hori?

Galdera edo erantzun korapilotsuak sortzen badira, jakina dago, ama-hizkuntzara jo daiteke. Galdeketa, ikasleak pozik azaldu ziren ez itzultzearekin eta alemanez bakarrik hitz egitearekin (ikus 5.2).

#### **4 Ikerketa**

##### **4.1. Arrazoiak**

1989tik aurrera, proiektu piloto bat jarri genuen martxan TANDEM-en alemanaren irakaskuntzan Sugestopedia sartzeko. Hauexek dira gure ikerketaren ardatzak:

- 1 hiztegia lehengo metodoan baino ugariago eta azkarrago emateak hizkuntz eraikuntzaren ontasunari kalterik egiten ote zion edo ez egiaztatzea;
- 2 ea metodo horri ikasleen ama-hizkuntzara itzultzea ekidingo zuen sistemaren bat itsasterik bai ote zegoen; izan ere, metodo horretan normalean itzuli egiten bait da.

##### **4.2 Ikerketa- -metodoa**

Honelaxe eraman zen ikerketa:

Ezaugarri berdinak zituztenen hiru talde aukeratu genituen. Sugestopedia-rekin arituko zirenak arrazoi askorengatik etorri ziren: ordutegiarengatik, jakinminak bultzata, metodo horrekin azkarrago ikasten dela uste zutelako edo hizketan azkarrago hasiko zirelakoan. Sugestopediaz aritzeko taldea nahasia zen (batzuk euskaldunak eta beste batzuk erdaldunak), besteek ama-hizkuntza euskara edo gaztelera zuten bitartean. Taldean 6 bat partaide ziren eta asteen 8 orduz aritzen ziren. Hasierako mailakoak ziren. Honako material hauek erabili ziren:

- MAITE LERNT DEUTSCH' testuak, Sugestopediazko taldearentzako apur bat moldatuta;
- material osagarriak;
- jolasak;
- kaseteak;
- beste zenbait material gehigarri.

Kontrol-frogen edukia: gramatika, hiztegia, adierazmena (testa elkarriketa gisakoa da). Gero galdeketa (Sugestopediazkoentzat bakarrik): 11 gal-

dera ireki, metodoaren elementuez, ikasgaien garapenaz eta giroaz orohar. Hemen, partaideen iritzia dira bereziki aintzakotzat hartzekoak.

Ikasleak zaputuz ez zitezen, ez genuen testak noiz egingo ziren aurrez esaten. (Ikus testen taula: .1.)

Testen taula

|                   | Sugestopedia                                            | Euskara                                                          | Gaztelania                                                       |
|-------------------|---------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------|
| 8 asteren buruan  | 3. testa<br>6. testa<br>7. testa<br>elkarriketa idatzia | 3. testa                                                         | 3. testa                                                         |
| 16 asteren buruan | Hiztegi-testa<br>Galdeketa                              | 6. testa<br>7. testa<br>elkarriketa idatzia<br><br>Hiztegi-testa | 6. testa<br>7. testa<br>elkarriketa idatzia<br><br>Hiztegi-testa |

3. testa= Zenbakia eta testaren edukia ikasgelan ikusitako unitateari dagozkio.

.1

#### 4.3 Testen lanketa

Ikasleen errorearen zenbatekoaz gain, errore horien nolakoa ere jakiteko, honako kategoria hauek egin genituen: gramatikako erroreak, ortografia-koak, sintaktikoak, morfologikoak, semantikoak eta hutsuneak ez betetzea. Elkarriketako erroreak idatzitako hitzen zenbatekoaren arabera neurtzen genituen, hau da, errore-mota bakoitzaren zenbatekoa zati hitzen zenbatekoa gehi 3 puntu eskatzen zen egitura gramatikalki bakoitzeko. Bestalde, erabilitako hitzen batezbestekoa ateratzen genuen idazmenaren neurria jakiteko. (Ikus *ebaluazio-aula* : .2.)

### 5 Emaizak

#### 5.1 Testen emaitzak eta interpretazioak

Lortutako emaitzak ez genituen esanguratsuak ziren ala ez ziren jakiteko moduan neurtu (ez genien kontrol estatistikorik egin). Testak metodoaren ezarpena kontrolatzeko egin bait ziren batipat eta ez emaitza berritzaileak lortzeko.

- A. Garbi ageri da taulan Sugestopediakoek egindako errorearen batezbestekoa Gaztelania-Alemana eta Euskara-Alemana taldekoenen artean dagoela. Horrek esan nahi du Sugestopediaz bi aldiz azkarrago irakas-

Errore-mota bakoitzeko batezbestekoa ikasleko

Ebaluazio-taula

| Testa                                                        | Erroreen gutxiengoa eta gehiengoa guztira |       |       | Orto (ikus 5.1 F) |      |      | Sint. |      |      | Morf. |      |      | Sem. |      |      | Hutsuneak bete (ikus 5.1 C) |     |      | Erroreak guztira: x |      |      | Hitzen kopurua |      |      |
|--------------------------------------------------------------|-------------------------------------------|-------|-------|-------------------|------|------|-------|------|------|-------|------|------|------|------|------|-----------------------------|-----|------|---------------------|------|------|----------------|------|------|
|                                                              | S                                         | G     | E     | S                 | G    | E    | S     | G    | E    | S     | G    | E    | S    | G    | E    | S                           | G   | E    | S                   | G    | E    | S              | G    | E    |
| (ikus 5.1 B)                                                 |                                           |       |       |                   |      |      |       |      |      |       |      |      |      |      |      |                             |     |      |                     |      |      |                |      |      |
| 3. testa                                                     | 7-40                                      | 7-20  | 12-37 | 11                | 5,8  | 12,3 | 0,1   | -    | 0,2  | 4,9   | 3,2  | 6,2  | 7,5  | 4,7  | 7,7  | 1,8                         | 0,8 | 1,3  | 25,3                | 14,5 | 27,7 |                |      |      |
| 6. testa                                                     | 3-21                                      | 7-16  | 5-16  | 0,2               | -    | 0,8  | -     | -    | -    | 5,1   | 6,6  | 3,2  | 4,1  | 5,2  | 3,4  | 2,2                         | -   | -2,8 | 11,6                | 11,8 | 10,2 |                |      |      |
| 7. testa                                                     | 5-24                                      | 7-16  | 8-20  | 1,1               | 0,6  | 1,8  | 1,4   | 1,2  | 2    | 3,3   | 3    | 3,2  | 5,4  | 5    | 6,2  | 2,7                         | 0,6 | 0,2  | 13,9                | 10,6 | 13,4 |                |      |      |
| (ikus 5.1 D)                                                 |                                           |       |       |                   |      |      |       |      |      |       |      |      |      |      |      |                             |     |      |                     |      |      |                |      |      |
| Hiztegia                                                     | 6-18                                      | 10-23 | 11-21 |                   |      |      |       |      |      |       |      |      |      |      |      |                             |     |      | 12                  | 14,4 | 17   |                |      |      |
| (ikus 5.1 E)                                                 |                                           |       |       |                   |      |      |       |      |      |       |      |      |      |      |      |                             |     |      |                     |      |      |                |      |      |
| Erroreak hitzen kopuruaren eta egitura gramatikalen arabera. |                                           |       |       |                   |      |      |       |      |      |       |      |      |      |      |      |                             |     |      |                     |      |      |                |      |      |
| Elkarrizketa                                                 | 0,09                                      | 0,12  | 0,1   | 0,09              | 0,03 | 0,07 | 0,02  | 0,02 | 0,05 | 0,04  | 0,06 | 0,04 | 0,05 | 0,04 | 0,06 |                             |     |      | 12                  | 14,4 | 17   |                |      |      |
|                                                              | 0,37                                      | 0,2   | 0,39  |                   |      |      |       |      |      |       |      |      |      |      |      |                             |     |      | 0,2                 | 0,15 | 0,22 | 74,1           | 59,4 | 49,6 |

Azalpenak

- S= *Sugestopedia* taldea
- G= *Gaztelania-alemana* taldea
- E= *Euskara-alemana* taldea

- Test eta talde bakoitzeko erroreen gutxiengo zenbakia (hiru lehen zutabeetako lehenengoa) eta erroreen gehiengoarena (hiru lehen zutabeetako bigarren zenbakia) azaltzen dugu talde bakoitzaren erroreak zein muga arteko esparruan eman ziren adierazteko.

- - = erroreak ez.

ten den arren, ez dela ezer galtzen hizkuntz eraikuntzaren ontasunean. Eta testuak itzuli gabe azaltzeak ere ez diola ikaskuntzari oztoporik egin.

Baina badira emaitzak beste taldekoenekin dituzten aldeengatik azpimarratzea merezi dutenak (ikus azpimarrak taulan).

- B.** 3.tik 7.en testetara begiratu, ikusten da Sugestopediazko taldean orohar tarte handia dagoela erroreen gehiengoaren eta gutxiengoaren artean. 3. testan hori bereziki erroreen gehiengoari dagokio eta 6. eta 7. testetan, berriz, erroreen gutxiengoa eta gehiengoa aski ezberdinak dira beste bi taldekoenekin alderatuz. Emaita hauek adierazten dute hizkuntz erraztasunean askoz alde handiagoak dituztela talde esperimentalekoek kontrol-taldekoek baino. Hauek elkarren antzekoagoak bait ziren.
- C.** Hutsuneak bete erako ariketek erroreen zenbatekoan eragin handia dute. Sugestopediazko taldeko ikasle guztiek zituzten batez ere honetan hutsuneak (ikus 3. eta 7. testak taulan). Horrek 7.testako erroreak nabarmenki ugari azaltzen ditu beste bi taldeekin erkatuta. Hau ulertzeko, kontuan hartu behar da Sugestopediazko ikastaroan ez zela test honetan eskatzen den bezalako ariketarik egin.
- D.** Sugestopediak, guk uste genuen bezala, ezagutzak buruan hobeto hartzeko bidea ematen dio ikasleari. Hiztegi-testak ere horixe bera bistaratzen du. Erroreen zenbatekorik handiena edo txikiena kontrol-taldeetan baino txikiagoa da. Eta gauza bera ageri da hutsegiteei beren osotasunean dagokionez ere (ikus 4.3 ataleko taula:  $\bar{x}$ ).
- E.** Sugestopediari egotz dakiokkeen beste emaitza bat talde esperimentalak elkarriketan hitz gehiago idatzi izana da. Metodoaren oinarria hein handi batean hitzeko komunikazioan datzanez, badirudi horrek libreki adierazteko erraztasuna areagotzen duela.
- F.** Komunikazioan ardaztutako metodoa aplikatzeak askotan dakarren arazoa errore ortografikoak ugari izatea da. Horixe bera nabarmentzen da hemen ere, Sugestopediazko taldea besteeekin erkatzen denean. Metodoan idatzizko ariketa gehiago sartzea izan daiteke irtenbidea.

Badirudike Sugestopedia ikasle batzuentzat egokiagoa dela beste batzuentzat baino edo badirela ikasleak ikasteko modu honetara beste batzuk baino errazago jartzen direnak. Baina prestakuntza sakona eskatzen zaio Sugestopediaren bidetik hasi nahi duenari. Metodora jartzeko laguntzen zaie eta ikasteko modu hau aukeratu edo ez erabakitze behar dituzten informazio guztiak ematen zaizkie.

## 5.2 Sugestopediazko ikastaroan aritutakoen ebaluazioa

Partaideen iritzia azalduko ditugu, ez luzatzeagatik bateratuta bada ere. Lortutako aleman-mailarekin, hamaika ikasletatik lau estranjeriara joan ziren (bi Alemaniara) eta bik ikastaroari utzi egin zioten beste zenbait arrazoiengatik.

- 1 • Zer irizten diozu orohar Sugestopediazko ikastaroari?
  - Zer-nolako iruditzen zaizu hizkuntzak ikasteko metodo hori?
  - Ba al da bereziki azpimarratuko zenukeenik ezer?
  - Berriro ere ikasiko al zenuke era horretan?

- ...oso metodo ona... esfortzu handirik gabe ikasi... interesgarria eta eraginkorra... oso amenoa.
- ...estilo dibertigarria da... ikasgelatik ez zara nekatuta irteten.
- ...klaseak ez dira aspergarriak eta ez da zaila horietara joatea.
- ...azalpenak alemanez ematea azpimarratuko nuke... lasaituta ikasi hasieratik... bi orduan jarraian aritu eta denbora ondo aprobetxatuz ez zara nekatuta irteten klasetik, hori azpimarratuko nuke.
- ...bai. Berriro ere ikasiko nuke metodo horrekin (lau ikasle) ... horretan emateko astirik ez bada, ez zaio behar bezalako etekinik ateratzen (ikasle bat).

2 Zure kritikak ikastaroari buruz. Zer falta izan du?

...kultura alemanarekin harreman gehiago... lanerako gaitasun handiagoa ikasleen aldetik... ikastaroa liburuko progresioa baino motelagoa izan da... gramatikazko gauza gehiago nahi nituzke.

3 Izan al du ikastaroak eraginik zure ohizko bizimoduan?

...beste ikastarotarako ere balio izan dit... lasaiago nago, ez hain urduri... klaseko materiala ondo datorkit etxean lasaitzeko... ez dut aldatu naizenik nabaritu... ondo datorkit kezka bat dudanean.

## **6 TANDEM** **Sugestopediaz:** **aurrera begira**

Honako ondorio hauetara iritsi gara aleman-ikastaroa lehenengo aldiz 1989ko urritik 1990eko maiatza bitartean behatu ondoren:

1 Aurrerantzean ere ikastaro hori eskainiko dugu ikastaro trinkoen artean, "Alemana euskaraz" "Autodidakt" eta beste gure sistemak bezala.

2 Ordutegiei dagokienez, aukera zabalagoak eskaintzen saiatuko gara, baina hori eredu bakar bihurtu gabe, ezin bait daitezke ikasle-klase guztiak horretara behartu.

3 Ikastaro hori goragoko mailetara zabaltzeak berandu sartzen diren partaideentzat sarrera-ikastaroak antolatzea eskatzen du.

4 Ikusteko dago oraindik ikastaroa funtsean ikaskuntza azkartzeko eta ikasgelako orduak gutxitzeko nahi den edo giro atseginagoan ikasteko; esate baterako, eguna lanean pasatuta gero ikasi nahi dutenentzat.

5 Ikastaro honen egiteko bat ikastetxe honetako beste irakasle eta kurtsuetako ideiei iturri gisa izan dezakeen emaria da.

6 Ahalegin handian saiatu behar da beren gogoz metodoari lotzen zaizkion irakasleak prestatzen.

7 TANDEMek alemanaren esparruaz beste atzerritarrentzat euskara eta gaztelania irakasten ere diharduenek, komeni da emaitzak beste hizkuntzetarako ere baliatzea.

### **6.1 Sugestopediaren aplikazioa euskararen irakaskuntzan**

Hiru arrazoiengatik izan daiteke bereziki interesgarria Sugestopedia euskararen irakaskuntzan:

- jende askok, ikasi eta lan batera egiten dituelako, nahi izan dezake ikaskuntza azkartzea;
- metodo honen bitartez asko gutxi daiteke euskara ulertu baina hitz egitera ausartzen ez direnen ehuneko altua, alderdi ludikoa eta hizketa sustatzen bait ditu bereziki;

–euskara zaila delako “kondaira beltza”ri aurka egin dakioke sugestio baidetarik.

Horretarako beharko litzateke:

- material egokia aukeratu, hau da, liburu bat. Elkarriketa kolokialak egon daitezela, hauxe da kontu handiz zaindu beharrekoa; ez dezatela, alegia, esaldi luzeegirik izan;
- zintak grabatu eta ekoiztu metodoari dagokion erritmoan;
- hiztegia itzulpenik gabe irakasteko, ikusizko materiala aukeratu edota ekoiztu;
- jolas didaktikoen bilduma.

Arazo tekniko hauetatik at, ikastetxe bat behar da euskara-irakasleak euskaraz prestatuko dituen, orain arte ingelesez, alemanez edo gaztelaniaz lan egiten bait da eta hizkuntza horietako material didaktikoaz baliatuz. Ikastetxe horren eskutik poliki-poliki metodo hau ikasgelan erabiliko duen eta aldi berean ebaluatuko duen talde bat osa daiteke.

*Itzultzailea: Boni Urkizu*

## **Aipuak**

- 1 **Lozanov, G.**, 1978. *Suggestology and Outlines of Suggestopediy* New York: Gordon & Beach, 201. or.
- 2 **Lozanov, G.**, *UNESCO - REPORT*, 14. or.
- 3 **Lozanov, G.**, 1978. *Suggestology and Outlines of Suggestology* New York: Gordon & Beach.
- 4 **Ostrander, Sh.** eta **L. Schroeder**, 1979. *Superlearning* New York: Delacorte.
- 5 **Wolff, J.**, 1986. “TANDEM” *Zutabe* 11.
- 6 **Jacobson, E.**, 1978. *Progressive Relaxation* Chicago: University of Chicago Press.
- 7 **Pietsch, A.** eta **J. Wolff**. 1987. *Maite lernt Deutsch* Donostia: Ediciones TANDEM.

## **Esker ona**

Eskerrak ematen dizkiogu:

Rainer Becker, Barbara Damm, Annette Feifel, Petra Newiger, Leandra Perez Casanova, Susanne Schamlewski, Michael Stolz, Gabi Thamm eta Klaus Dieter Walter-i esperientzia honetan eskainitako laguntzategatik. Baita Leonor Saezi ere, gaztelerazko izkribua aztertu eta zuzentzeagatik.